

## XVIII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

### Otoitza

Zatozkie lagun, Jauna, zeure zerbitzari  
 eta ager iezaiezu beti zeure bihotz ona otoizka ari zaizkizunei;  
 eta, egile eta nagusi aiotortzen baitzaituzte,  
 emaezu bizi berria  
 eta zaindu itzazu beti bizi berri horretan.  
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Koh 1, 2; 2, 21-23

*Zer irabazi ateratzen du gizakiak,  
 lanaren lanez nekatu ondoren?*

Koheleten liburutik

Hutsaren hutsa –dio Predikariak–,  
 hutsaren hutsa; dena huskeria da.

Izan ere badira gizakiak, buruz, egoki eta trebetasunez lan egin ondoren, azkenean ezer egin ez duenari dena utzi beharrean aurkitzen direnak. Hori ere huskeria da eta oher handia. Zer irabazi ateratzen du gizakiak lanaren lanez eta kezkaren kezkaz eguzkipean nekatu ondoren? Egunez atsekabeak, nekeak eta oinazeak; eta gaeuz ere ez du atsedetik haren bihotzak. Hau ere huskeria da.

ERANTZUN SALMOA: Sal 94, 1-2. 6-7abc. 7d-9

R/. **Entzungo al duzue gaur Jaunaren mintzoa:**  
**«Ez gogortu zuen bihotza».**

Zatozte, pozez oihu degiogun Jaunari,  
 txalo degiogun salbamen dugun Harkaitzari.  
 Hurbil gakizkion aurrera esker-kantuekin,  
 jai degiogun txalo eta eresiekin. R/.

Zatozte, ahozpez jaurets dezagun,  
 egin gaituen Jaunari belaunika gakizkion.  
 Bera baita gure Jainkoa,  
 gu, berriz, Haren larreko herria,  
 Haren zainpeko artaldea. R/.

Entzungo al duzue gaur Haren mintzoa:  
 «Ez gogortu zuen bihotzak Meriban bezala,  
 Masa-egunean basamortuan bezala.  
 Zuen gurasoek han zirikatu ninduten,  
 Nik eginak ikusi arren, tentatu ninduten.» R/.

## II. IRAKURGAIA: Kol 3, 1-5. 9-11

*Zabiltzate goi ondasunen bila,  
han baitago Kristo.*

San Paulo Apostoluak Kolosarrei

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, zabiltzate goi ondasunen bila, han baitago Kristo Jaungoikoaren eskuin aldean jarririk. Irrika itzazue goiko ondasunak, eta ez lurrekoak. Hil baitzarete; eta zuen bizia Kristorekin Jaungoikoarengan ezkutaturik dago. Gure bizia den Kristo agertuko denean, zuek ere agertuko zarete aintzaz Harekin batean.

Hil ezazue, beraz, zeuen gorputzean lurkoi den guztia: haragikeria, lohikeria, grinak, gutizikeriak eta sasijainkokeria den dirugosea. Ez esan elkarri gezurrik. Erantzi zeuen gizaki zaharra bere egiteekin; eta jantzi berria: bere egilearen ereduz, berritzen doana, ezaguera bateraino iritsi arte. Erakunde berri honetan, ez greziarrik, ez judutarrik, ez erdaindurik, ez erdaingaberik, ez arrotzik, ez eszitarrik, ez etxekorik, ez morroirik, baizik eta Kristo da guztien bilduma eta Kristo dago guztietan.

EBANJELIOA: Lk 12, 13-21

**Aleluia:** Mt 5, 3

R/. Aleluia.

V/. Zorionekoak, gogoz behartsu direnak;  
berena dute eta zeruetako erreinua. R/.

*Norentzat izango dira pilatu dituzunak?*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, jende arteko batek esan zion Jesusi: «Maisu, esaiozu nire anaiari, erdibana dezala nirekin senipartea».

Jesusek erantzun zion: «Gizon, nork jarri nau Ni, zuen artean, epaile edo erdibanatzaile?» Eta jendeari esan zion: «Begira, aldegizue ondasungose guztitik. Ez baitago inoren bizia, asko edukita ere, dauzkan ondasunetan».

Eta parabola hau esan zien: «Gizon aberats baten soroak fruitu ugari eman zuen; eta honela zioen bere baitan: "Zer egin orain? Nire uzta non sarturik ez daukat". Eta esan zuen: "Hauxe egingo dut: nire mandioak bota, eta handiagoak egin; eta han gordeko ditut nire uzta eta ondasun guztiak". Eta esango diot nire buruari: "Ea, motel! Baduk ondasunik asko urtetarako gordeta; hago lasai: jan, edan eta egizak jai!"

Baina Jaungoikoak esan zion: "Zoro alena! Gaur gauean datoz zure biziaren bila; eta norentzat izango dira pilatu dituzunak?"

Horrela gertatzen zaio, ondasunak beretzako bilduta, Jaungoikoarentzat aberats ez denari».

### **Oparigaien gainekoa**

Jainko guztiz ona, santu egizkizu dohain hauek  
eta, eukaristi oparia onarturik,  
egin gaitzazu gu ere Zuretzat betiko opari.  
Jesu Kristo.

## Jaunartze ondorengo

Zaindu itzazu beti, Jauna,  
zeruko dohainez berritu dituzunak;  
eta honela indarberritzen gaituzunok  
eraman gaitzazu betiko salbamenera.  
Jesu Kristo.